


Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzaren kostuak %0,2 igo dira 2007ko ekainean

Azken hamabi hilabeteetan (2006ko ekainetik 2007ko ekainera) eraikuntzaren kostuak %5,4 igo dira.

EUSTATen datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan eraikuntzaren kostuen indizeak %0,2ko igoera izan du 2007ko ekainean, aurreko hilabetearen aldean; horrela, hilabete horretako urte arteko tasa %5,4raino igo da. Beste azpisektore batzuek ere izan dituzte gehikuntzak ekainean: eraikuntza %0,2 gehitu da eta obra zibila %0,1. Eraikuntzaren urte arteko tasa %5,6koa izan da eta obra zibilarena %4,5ekoa.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2007



(*) Hazkundera ekainako urte artekoa da

Iturria: EUSTAT

2007ko ekainean laneskuaren kostuak ez du inolako aldaketarik izan (%0,0), aitzitik lehengaien kostuek %0,2ko igoera izan dute.

Eraikuntzaren eta obra zibilaren azpisektoreek antzeko bilakaera izan dute: eraikuntzako lehengaien kostuek %0,3ko igoera izan dute aurreko hilabetearen aldean, eta obra zibiletakoek %0,2koa. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran, argi ikusten da antzeko joerak izan dituztela baina ezberdintasun batzuekin: eraikuntzako lehengaien kostuak %6,5 gehitu ziren, eta obra zibilekoak %5,1.

Ekainean, prezioen hazkunde handienak, besteak beste, ondoko hauetan kontsumitutako lehengaietan eman dira: kare, igeltsu eta eskaiolan (%4,9), lehergailu eta gasetan (%2,1), metalezko tutuerian (%1,4) eta petrolioaren eratorrietan (%1,2). Ondoko hauetako lehengaien

prezioak, berriz, gutxitu egin dira, besteak beste: energia elektrikoa (%-2,8), pinturak eta bernizak (%-0,1), erauzketa-agregakinak (%-0,1) eta gailuak eta material elektrikoa (%-0,1).

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenak ondokoak izan dira: beira (%24,0), burdina eta altzairua (%20,2), metalezko tutueria (%17,2), karea, igeltsua eta eskaiola (%8,1). Bestalde, ondoko hauen lehengaien urte arteko prezioak (2006ko ekainetik 2007ko ekainera) murriztu egin dira: asfaltozko produktuak (%-8,4), petrolioaren eratorriak (%-2,8) eta egiturak eta galdaragintza (%-1,4).

Eraikuntzaren kostuen indizea. Euskal AE / Datu aurrerapena. 2007ko ekaina.

GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	131,3	0,2	5,4	3,6
ERAIKINAK	131,5	0,2	5,6	3,7
OBRA ZIBILA	130,6	0,1	4,5	3,5
LEHENGAIEN KOSTUA	128,7	0,2	6,2	3,7
ERAIKINAK	129,1	0,3	6,5	3,8
OBRA ZIBILA	126,9	0,2	5,1	3,5
LAN-ESKUAREN KOSTUA	137,4	0,0	3,5	3,5

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp